

Euskal Kulturgintza

Liburuak eta musika

Andoni Sagarna

2012-12-05

MUren eskaria

- *Euskarazko argitalpengintzaren bilakaera Elkar-en eta sektorean. Erronkak, arriskuak, aukerak*
- *Ohiko balio-katearen ezaugarriak*
- *Kontsumoaren nondik norakoak*
- *Politika publikoen bilakaera*

Euskal Kulturgintza

Kulturaren hainbat definizio daude, ikuspegiaren arabera

UNESCOrena:

«Zentzurik zabalenean, gizarte bat edo giza talde bat ezaugarritzen duten bereizgarri espiritualen eta materialen, intelektualen eta afektiboen multzotzat har daiteke gaur egun kultura. Horren barruan sartzen dira, arteez eta letrez aparte, bizimoldeak, gizakiaren oinarrizko eskubideak, balio-sistemak, tradizioak eta sinesteak.»

Euskal Kulturgintza: euskara erabiliz edukiak sortzeko, hedatzeko eta kontsumitzeko jardueren multzoa:


Hedabideak, liburuak, musika, antzerkia, zinema, bertsolaritza, irakaskuntza

Kultura batek kultura-industria sendoa behar du


- Eraginkortasun kulturala
- Eraginkortasun ekonomikoa

Ikus dezagun euskarazko edukien industriak zer girotan lortu behar dituen bi helburuok

Liburugintzaren ohiko balio-katea



Liburuen salmenta



Kontsumitzailearen eta produktuaren/zerbitzuaren topagunea


KANALAK

- Liburu-denda independenteak: Hontza, Cámara, ...
- Liburu-denden kateak: Elkar, Casa del libro, ...
- Saltoki handiak: Eroski, Carrefour, ...
- Interneteko dendak


Denda
fisikoak

Denda
birtualak

Denda fisikoak eta birtualak




Titulu batetik saldutako ale-kopurua



Tituluen kopurua

Ikusgaitasunaren arazoa



Ekoizpenaren inflazioa Espainiako merkatuan

Datos globales. ISBN concedidos


Conceptos	Años				
	2006	2007	2008	2009	2010
Libros en soporte papel	82.940	88.679	95.508	96.955	95.959
Libros en otros soportes	4.500	8.091	8.715	13.250	18.500
Producción total	87.440	96.770	104.223	110.205	114.459
% Interanual	+3,7	+10,7	+7,7	+5,7	+3,9

Bizirik dauden tituluaren kopurua Espainiako merkatuan: 400.000

Edición en euskera por la naturaleza jurídica del agente editor


Tipo de agente editor	Libros	%	% Variación 2010/09	Agentes editores	%	% Variación 10/09
Edición pública	127	6,9	-4,5	20	17,7	+11,1
Autores-editores	62	3,3	-11,4	2	1,8	-33,3
Editoriales pequeñas	251	13,6	+56,9	54	47,8	+50,0
Editoriales medianas	1.060	57,2	-23,4	26	23,0	-10,3
Editoriales grandes	352	19,0	+19,7	11	9,7	-15,4
Edición privada	1.725	93,1	-9,5	93	82,3	+14,8
TOTAL	1.852	100,0	-9,2	113	100,0	+14,1

Nobedade-zerbitzuak. Itzulketak. Argitalpen-industriaren burbuila



- Liburu-denda independenteak ito egiten dira nobedade-uholdean
- Espainiako merkatuan liburuen %30 inguru itzultzen dira
- Banatzaileei itzulketen logistikak kostu izugarriak ekartzen dizkie

Erosleari zerbitzua ematea




- Titulu jakin baten bila doanak nekez aurkituko du dendan. Dendaren erronka ahalik eta denborarik laburrenean titulu hori bezeroaren esku jartzea da. Liburu-denda independenteen eta saltoki handien mugak
- Dendan ikusmiran ibiliz nobedadeak erosten dira batez ere

Dendak bi erronka ditu:


- Nobedadeen kudeaketa
- Bezeroen eskariei laster erantzutea

Denda independenteen zailtasunak



- Ahulezia nobedade-zerbitzuen aurrean. Ez dute indarrik interesatzen zaizkien nobedadeak soilik jasotzeko
- Bezeroen eskariei laster erantzuteko zailtasuna. Ez dute erosketak kudeatzeko azpiegiturarik
- Sistema informatiko ahaltzuen falta
- Belaunaldien errelebo zaila

Ikusgaitasunaren arazoa liburu-denda birtualetan



Titulu batetik saldutako ale-kopurua



Tituluen kopurua

Metadatuaren eragina liburuen salmentan. Ikus:

<http://andonisagarna.blogspot.com.es/2012/06/metadatuaren-eragina-liburuen-salmentan.html>

Ikusgaitasuna are gehiago galtzera daramaten bi indar berri

- 1) Eskatu ahalako inprimaketa (Print-on-demand). Titulu agorturik eta deskatalogaturik ez izatera darama



<http://www.youtube.com/watch?v=uDW0b07XL5A>

<http://andonisagarna.blogspot.com.es/search?q=espresso>

Ikusgaitasuna are gehiago galtzera daramaten bi indar berri

2) Autoedizioa




Amaraunean norberak argitaratzearen on-gaitzak. Ikus:

<http://andonisagarna.blogspot.com.es/2012/08/amaraunean-norberak-argitaratzearen-on.html>

Euskarazko produkzioa erdarazkoekin batera iristen da salmenta-puntuetara

- Ikusgaitasun arazo bereziak ditu
- Bere balio-kateari dinamika propioa emango dioten eragile sendo konprometituak behar ditu:
 - Sendoak: eraginkortasun ekonomikoa dutenak
 - Konprometituak: eraginkortasun kulturala dutenak




Errentagarritasun
ekonomikoa eta
kulturala

Elkar-en eredua

Elkar taldea osatzen duten enpresa guztien jabea Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa da.

- Enpresen irabaziak berrinbertitu egiten dira
- Fundazioa likidatuko balitz, funtsa helburu berarekin erabili beharko litzateke

Elkar taldearen enpresak eta jarduerak



Argitaletxeak

Elkar
 Ttartalo
 Oihuka
 Sua
 Txertoa
 Ikaselkar
 (partaidetza)

Inprenta

Leitzaran
 (partaidetza)

Banaketa

Elkar
 Banaketa
 Elkar Cash &
 Carry (3)
 ACL (Madril)
 MCL
 (bartzelona)

Dendak

7 Gipuzkoan
 5 Bizkaian
 2 Araban
 2 Nafarroan
 1 Lapurdin
 2 Bartzelonan
 1 Valentzian

Elkar-en denda integratuak

- Liburu-denda independenteak ixten ari dira edo ixteko arriskuan daude
- Elkar-ek bere kudeaketa-sistema (erosketak, nobedadeak, sistema informatikoa, stock birtuala) eta bezero lehenetsi izatea eskaintzen die
- Trukean hornitzaile bakarra Elkar dute.

*Lazkaon Gerriko
Zarautzen Garoa
Lasarten Ekain
Leioan Penter*

Digitalizazioaren erronka


Digitalizazioa iraultzailea da

Digitalizazioak era guztietako informazioa, era guztietako formatuetan, eraginkortasun berberaz garraiatzea eta konbinatzea ahalbidetzen du.

Denis McQuail



Liburu inprimatua bera historian zehar gertatu den garapen teknologiko baten kate-maila bat da



- Digitalizazioak eragin du, esate baterako, argazkigintza filmetatik eta errebelatze kimikotik askatzea, musika guztiz diskoetan zabalzetik gehien bat Internet bidez zabaltzera igarotzea.

- Liburuaren kasuan, digitalizazioak ekoizpen-fase guztiak ukitu ditu: testu-lanketa, maketazioa, fotokonposizioa, inprentako plantxa zuzenean egitea, baina euskarri digitalean sortu dugun originala “desdigitalizatu” egin dugu orain arte, paperezko liburu inprimatua egiteko.

Eduki inprimatuak eta eduki digitalak

INPRIMATUA

Informazioa itxia eta mugatua da

Ez da eguneratzen

Nekez garraiatzen da

Lekua hartzen du

Kopiaketak kostua du

Irakurri bakarrik egin daiteke

DIGITALA

Ez du zertan mugatua izan behar

Etengabe egunera daiteke

Laster eta erraz garraiatzen da

Ez du ia lekurik hartzen

Kopiaketak ez du ia kosturik

Beste hainbat aukera ematen ditu

Digitalizazioak espazio/denboraren mugak apurtu ditu

Produktu “paketatuak”

Liburua
Paperezko egunkaria
Telebistako programa
Musikako diskoa
Film bat

Editore batzuek edukiak aukeratzen dituzte, produktu batean paketatzen dituzte, hori saldu egiten da eta iruzurrezko kopiaketa eragozteko neurriak hartzen dira.

Eduki digitalak

Web orriak
Blogak
mp3
Sare sozialak

Edukiak formatu digitalean hedatzen dira, erabiltzaileak ez dira kontsumitzaile pasiboak, hipertestuak erabiltzen dira, edukiak interaktiboak dira, edukiak multimedia dira, lankidetzeta-sareak sortzen dira eta eskubideak tratatzeko modu berriak sortzen dira: Creative Commons, GNU, etab.

Digitalizazioa produktu bukatura iritsi da: ebooka edo liburu digitala

- 1968 Dynabook
- 1992 Voyager Company-ren Expanded Books
- 1998 Lehen irakurgailu dedikatuak
- 2006 Sony Reader irakurgailua
- 2007 Amazon Kindle irakurgailua

AEBn eta EBn ebookak hazkunde lasterra izan du. Beste herrialdeak oso atzetik doaz

Ebooken merkatu-kuota liburuen merkatu osoan

AEB	%20
EB	%13
Alemania	%2
Herbehereak	%3*
Frantzia	%1,8
Espainia	%1

* 2012aren bukaeran espero dena

AEBn eta EBn ebookak hazkunde lasterra izan du. Beste herrialdeak oso atzetik doaz

- Ingeleseko produktuen merkatua mundu osoa da.
- Amazon, Apple eta Googleren interesen arteko borroka AEBn ebookak merkeak izatea eragin du.
 - Bezeroentzat ona izan da
 - Liburu-denda txikientzat galgarria izan da
- Europako hizkuntzen merkatuak murrizak dira
- Hemen Liburuaren Legeak prezio finkoa inposatzen du, kultura babesteko, liburu-denda txikiak babestuz.
- BEZaren arazoa

Liburu digitalen zenbait arazo


- Estandarizazio-falta

<http://andonisagarna.blogspot.com.es/2012/07/publication-standards-project-egitasmoa.html>

- Plataformak
- Pirateria

Etorkizuneko balio-katea

"Behin sortzea, hainbat aldiz argitaratzea"



Nola erantzun erronka berriei euskal kulturgintzarekiko konpromisoa betez

EZINBESTEKO HELBURUAK

- Euskarazko produktuak, euskal kultura bultzatzen eta ezagutzera ematen duten produktuak eta zerbitzuak kaleratzea
- Eraginkortasun ekonomikoa, iraunkortasuna lortzeko
- Printzipio etikoak errespetatzea

Nola erantzun erronka berriei euskal kulturgintzarekiko konpromisoa betez

ERRONKEN JATORRIA

- Teknologiaren aldaketa: edukien digitalizazioa, telefono aurreratuak, Internet, garraio lasterrak, sare sozialak
- Merkataritzaren aldaketa: merkataritza elektronikoa, eskaintzaren ugartasuna, produktuen eta zerbitzuen arteko mugak lausotzea
- Aldaketa sozioekonomikoak: familia klasikoaren ondoan beste eredu batzuk hedatzea, emakumeak lan-munduan sartzea, haurrak beranduago izatea, adinen piramidea aldatzea, mugikortasun geografiko handia, lanaren aldakortasuna, ingurumenarekiko sentiberatasuna handitzea, bezeroen fideltasun txikiagoa, gizartea laikitzea, krisialdi ekonomikoa, lanean beranduago hastea.

Nola erantzun erronka berriei euskal kulturgintzarekiko konpromisoa betez

ERRONKAK ETA ERANTZUN POSIBLEAK

- **Tituluen ikusgaitasuna gutxitzea**
 - Marketineko estrategia egokia: bezeroarekiko zuzeneko harremana, eduki-marketina, hainbat kanal erabiltzea (e-maila, sare sozialak, buletinak, trailerrak, etab.) sentimenduen analisia, CRMak, metadatuak (ONIX, BIC, Thema, DILVE, Libranda), SEO, komunitateak sortzea

Nola erantzun erronka berriei euskal kulturgintzarekiko konpromisoa betez

ERRONKAK ETA ERANTZUN POSIBLEAK

- **Mundu osoan paperezko liburuen salmenta gutxitzen ari da eta ebookena handitzen, baina honek ez du hura konpentsatzen. Diru-sarrerak gutxitzen dira eta inbertitu beharra dago**
 - kontsumitzaileek balioa ekartzen diela hautematen duten hartan jartzen dute dirua → merkatu-ikerketak zer balio erantsi nahi luketen jakiteko
 - Produktuak dibertsifikatzea: transmedia produktuak, aliantzak eta lankidetzak, errealitate areagotua, QR kodeak, Layar
 - Merkatu handietarako produktuak sortzea: ingelesezkoa, gaztelaniazkoa
 - Produktuak eskaintzeko erak dibertsifikatzea: kapitulukako salmenta, harpidetza, streaming-a, edukiak denbora baterako alokatzea, print-on-demand.

Nola erantzun erronka berriei euskal kulturgintzarekiko konpromisoa betez

ERRONKAK ETA ERANTZUN POSIBLEAK

- **Eduki asko doan lortzen direnez, erabiltzaileak prezioari asko begiratzen dio**
 - Edukiak onartzen diren prezioetara egokitzea. Kontsumitzaileak nola hautematen duen zerbaiten prezioa erabakigarria da, hark produktua erostea ala ez erostea erabaki dezan
 - Freemium formula erabiltzea. Formula honetan produktu batek bi bertsio izaten ditu, bata sinplea edo eguneratzen ez dena edo iraupen mugatua duena edo beste mugaren bat duena, doan eskaintzen dena, eta bestea aberatsagoa edo beste abantailaren bat duena, ordaindu beharrekoa. Dohainikakoak aberastura erakarri nahi lituzke kontsumitzaileak
 - Edukietan publizitatea txertatzea.